

# gaz-teak



**Getxo**  
*bizi ezazu*

Doako alea

377 zb.  
[www.getxo.eus](http://www.getxo.eus)

>> 2023ko apirila



## Euskadiko gazteak Lankidetzan 2023

JUVENTUD VASCA COOPERANTE

Izen-ematea: apirilaren 21era arte    Inscripción: hasta el 21 de abril



GARAPENERAKO  
LANKIDETZAREN  
EUSKAL AGENTZIA    AGENCIA VASCA DE  
COOPERACIÓN PARA  
EL DESARROLLO

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA  
Goberno Zuzendaritza

PRESIDENCIA  
Dirección de Juventud

gzt gazteakukera



## “Lan-elkarrizketari aurre egiteko tresnak” izeneko tailerra

Gazteria Zerbitzuak 16 urtetik gorako gazteei zuzendutako “Lan-elkarrizketari aurre egiteko tresnak” izeneko tailerra antolatu du. Algortako Urgull kaleko bigarren solairuan egingo da, apirilaren 19an eta 26an, asteazkenetan, 17:30etik 19:30era. Jolasaren bidez, elkarrizketa mota desberdinak aztertuko dira: banakakoak eta taldekoak. Horri esker, pertsona bakoitzaren indarguneak eta elkarrizketa bat gaitzitzeko zer alderdi doitu behar dituen jakingo da. Tailerrak teoria, bizipena eta gogoeta uztaizten ditu. Inskripzioak telefono honetan: 688 88 09 85.



## ERJEIE eta RipbizitzaS3 taldeak sarituta Gurot Lehiaketan

Joan den astean Bilbon ospatutako Gurot euskarazko galderen lehiaketaren Bizkaiko finalean, ERJEIE (Eider Arrizabalaga, June Camina eta Jare Fullaondo) eta RipbizitzaS3 (Aratz Moral, Unax Font eta Markel Laiseka) taldeak bigarren eta hirugarren postuetan geratu ziren, Getxoko fasea irabazi ondoren. Oraingo sariak haririk gabeko aurikularrak eta Elkar dendetako 50 euroko bono bana izan dira, hurrenez hurren.

## BEKAK SARIAK

\* **Mikrokontakizun lehiaketa.** Getxoko Ingurumen Aretoak haurrentzako (6-11 urte) eta gazteentzako (12-17 urte) mikrokontakizun lehiaketa antolatu du Ama Lurraren Egunean (apirilaren 22an). Kontakizunak (150/180 luzapen-hitz) [info@ingurumenaretoagetxo.eus](mailto:info@ingurumenaretoagetxo.eus) helbidera bidali behar dira apirilaren 30era arte. “Zarata hori etengabe entzuten zen” esaldiarekin hasi beharko dute. Saria: produktu ekologikoen saskia. Oinarriak: <https://www.ingurumenaretoagetxo.eus/>

\* **“Portugalete Uri Urena” komiki-lehiaketa,** Portugaleteko Udalak deituta, euskaraz edo gaztelaniaz. Sariak 100 eta 1.700 euro artekoak dira. Lanak aurkezteko epea: maiatzak 5. Informazio gehiago: [santaclara@portugalete.org](mailto:santaclara@portugalete.org) eta <https://labur.eus/5VoFh>

\* **Botin Fundazioaren arte plastikoetarako bekak** 30 urtetik behararako artista plastikoentzat. Iraupena: 9 hilabete. Zuzkidura: 23.000€. Eskararak: maiatzaren 5era arte. Informazio gehiago: 942226072, [becas@fundacionbotin.org](mailto:becas@fundacionbotin.org) eta <https://labur.eus/bf9sg>

## Romoko Gaztelekuaren programazioa

**Apirila**  
**Hilak 4, asteartea:** ASANBLADA: MAIATZEKO PROGRAMAZIOA  
**Hilak 5, 12, 19 eta 26, asteazkenak:** TAILERRA: ANTZERKIA  
**Hilak 8, larunbata:** EKINTZA: URTEURRENA  
**Hilak 11, asteartea:** SUKALDARITZA: ITALIAKO JANARIA  
**Hilak 16, igandea:** TXAPELKETA: FUTBOLINA  
**Hilak 18, asteartea:** ESKULANA: GRAFFITI  
**Hilak 21, ostirala:** EKINTZA: BIDEOJOKOAK  
**Hilak 22, larunbata:** IRTEERA: ESKALADA  
**Hilak 28, ostirala:** SUKALDARITZA: TORRADAK  
**Hilak 29, larunbata:** IRTEERA: BUTROE GAZTELUA

## Algortako Gaztelekuaren programazioa

**Apirila**  
**Hilak 2, igandea:** FUTBOLIN TXAPELKETA  
**Hilak 4, asteartea:** ASANBLADA: MAIATZEKO PROGRAMAZIOA  
**Hilak 5, 12, 19 eta 26, asteazkenak:** IRAKURKETA KLUBA  
**Hilak 8, larunbata:** GRAFFITI TAILERRA  
**Hilak 14, ostirala:** MASTER CHEF: TORTITAK  
**Hilak 16, igandea:** PING-PONG TXAPELKETA  
**Hilak 20, osteguna:** TAILERRA: JOKU PATOLOGIKOA  
**Hilak 22, larunbata:** IRTEERA: ESKALADA  
**Hilak 27, osteguna:** ESKULANAK: PAPIROFLEXIA  
**Hilak 29, larunbata:** IRTEERA: BUTROI GAZTELUA

25 urteko ibilbidea ospatzen du

## Euskadiko Gazteak Lankidetzan 2023 programan parte hartzeko izen-ematea zabalik

Apirilaren 21era arte, ostirala, zabalik egongo da Eusko Jaurlaritzak antolatutako eta 25 urteko ibilbidea egiten duen “Euskadiko Gazteak Lankidetzan” programan parte hartzeko izena emateko epea. Programa horretan 1990 eta 2000 urteen artean jaiotako ehun bat gazte parte hartu ahal izango dute. Euskadiko gazteak hegoaldeko herrialdeetako lankidetz-ekintzetan sentsibilizatzea eta euskal gazteen artean herrien eta kulturen arteko elkartasun-kultura sustatzea da esperientzia honen helburu nagusia. Esperientzia honek hiru hilabeteko iraupena izango du, batez ere uztailetik urrira. Horretarako, hautatutako pertsonak zuzenean parte hartzen dute Amerika, Asia eta Afrikako herrialdeetako garapenerako lankidetz-ekintzetan, eta, horri esker, ekintza horien garapena “in situ” ezagutu dezakete. Jarduera egiten den herrialdeko nazioarteko hizkuntza ezagutu beharko da, eta eskaerak online egiten dira (identifikazio elektronikorako bitarteko bat behar da).

Nahiz eta GGKEek programara aurkeztutako proiektuen beharren arabera izan, garatu beharreko lanak zerikusia izan ohi du arlo hauekin: Hezkuntza, Pedagogia, Gizarte Lana edo Gizarte Hezkuntza, Psikologia, Berdintasuna, Begiraleak, Aisialdia, Infor-



matika, Ekonomia-Kontabilitatea, Medikuntza, Erizaintza, Farmazia, Ingeniaritza, Arkitektura, Agronomia, Meknika, Elektrizitatea, Arotzeria, Iturgintza, Nutrizioa, Sukaldaritza...

Gastuak Eusko Jaurlaritzaren kontura dira: joan-etorriko bidaia helmugako herrialdean GGKEekin harremanetan jartzeko punturaino, bisatua eta erantzukizun zibileko politza, istripuak eta bidaiako laguntza.

### Egutegia

- Izen-ematea: apirilaren

21era arte.

- Aurrez hautatuen eta ordezkien zerrenda argitaratzea: apirilaren 27a.
- Aurre-hautatuen topaketa Barrian (Araba): maiatzak 12-14.
- Zerrendak, hautatutako pertsonak eta ordezkioak argitaratzea: maiatzaren 16a.
- Informazio eta orientazio aldia Barrian: maiatzak 20-21.
- Ebaluazio-topaketa Barrian: zehaztu gabe.

Informazio guztia eta izen-emateak hemen:

<https://labur.eus/Hgjn6>

## Eskaerak apirilaren 9ra arte aurkeztu ahal izango dira 40 gazte hartuko dute parte III. “Erbesterako Ibilbidea: Paisaiaren orbainak” bidaian

Guztira 40 gazte ibiliko dira, uztailearen 15etik 30era, Nafarroako, Kataluniako eta Frantziako hego-ekialdeko erbestealdi errepublikar eta zibileko lekuetan. Gazterien Institutuak (INJUVE) eta Be Wild Be Proud elkarteak antolatzen duten hirugarren ibilbidea da, Nafarroako Memoria Institutuarekin eta Bartzelonako Unibertsitateko Memorien Europako Behatokiarekin batera.

Datorren apirilaren 9ra arte egongo dira zabalik hezkuntza-proiektu ibiltari honetarako izen-emateak. Proiektu horren helburua da duela gutxi historia belaunaldi berrii hurbiltzea, Espainiako erbestealdi errepublikanoaren memoria-lekuetan barrena ibiliz, eta prestakuntza-jarduerekin eta jarduera soziokulturalekin metodologia interaktiboa erabiliz.

Hirugarren edizio honek, “Ruta al Exilio 2023: Cicatrices del paisaje” izenburua duenak, 1936ko errepresioaren ibilbideak biltzen ditu Nafa-



rron, eta Pirinioetako muga eta Katalunia eta Frantziaren arteko Mediterraneoeko kostaldea arakatuko ditu berriro. Deialdia, bidaiaren unean 16 eta 17 urte bitarte dituzten gazteei zuzenduta dago eta dohainik izango da.

Izena eman ondoren, apirilaren 10etik maiatzaren 18ra izango da bekak hautatzeko eta emateko epea, eta maiatzaren 21ean argitaratuko da

onartutakoen zerrenda. Parte hartu nahi dutenek motibazio gutun edo bideo bat eta proiektu sortzaile baten proposamena bidali beharko dituzte. Hautaketan, proposamenen motibazioa eta originaltasuna baloratuko dira, jendeari eta ikuspegiei dago kienez askotariko ingurunea sortzeko asmoz.

Informazioa: [www.rutaalexilio.es](http://www.rutaalexilio.es)